

AZOKA ETA BERTAKO LEHEN SEKTOREA BERINDARTZEKO MOZIOA

Asteazkenetako azokaren kokalekua da udal honek egin behar duen hobekuntzetako bat. Gaur egun hartzen duen lekua epe jakin baterako zen, Erriberan eta Askatasun Parkean egin behar ziren lanak baitziren muga jarriko ziotenak. Egoera hori, ordea, egonkortu da, eta irtenbide bat eman beharko genioke.

Badakigu, udal zerbitzuetatik ere jakinarazi digutelako, asteazkenetako azokan parte hartzeko saltzaileen itzarote-zerrenda luzea dela. Hori horrela izanik, beraien produktuak saltzera probintziatik datozen azokarientzat Lasarte-Oria garrantzi handiko plaza dela esan dezakegu.

Larunbatetako azokari dagokionean, udal talde honetatik ondokoa azpimarratu nahiko genuke: duela urte batzuk, ferrialariek udalari ordaindu behar dioten zerga murriztea proposatu genuen, horrelako ekintzak baitira lehen sektorea bizirauten laguntzen dutenak.

Larunbateko azokan saltzen diren produktuak bertakoak eta garaikoak dira. Produktu horien kontsumoa gizartearen hainbat esparruetatik bultzatzen da, eta administratibotik bertatik ere lagundu beharko litzateke, elikadura hobeago eta osasungarriagoa lortzearren.

Beraz, lehen sektoreko jarduera sustatzen jarraitu behar dugula uste dugu, eta horren adibide aurreko legegintzaldian burutu zen "Baserriko produktuaren kontsumoa indartzeko III Azoka".

Horregatik, EAJ-PNV udal taldetik honakoa eskatzen dugu:

- Asteroko azoka, asteazkeneko zein larunbatekoa, arautzen duen ordenantza bat sortzea.

- Aipatutako azokentzat kokaleku berri baten proposamena:

- Asteazkenetakoa herritarrei arrisku gunerik gabe eskaintzea, lagun asko baitira Kale Nagusiko zebra-bidea zeharkatzen dutenak, eta jakina baita ikuspen urria dagoela bertan.

- Larunbatetako azokari benetako bultzada emateko, kokapena bateratzea (Zumaburu kalea eta Okendo Plaza).

-Jarduera berriak aztertzea, hala nola hilabeteko ez-ohiko azoka, bertako eta eskualdeko lehen sektoreko produktuak kontsumitzen ohitzeko.

-Lasarte-Oriako Udalak, azokako saltzaileei, Aterpeaki eta kontsumo Kooperatibei, ordenantza zein kokapen berria jakinaraztea, haiek ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.



Lasarte-Oriako EAJ
LASARTE-ORIA